


Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Dirua ez da iristen Hubble teleskopioaren ordezkorako

QUANTUM.BLOGSPOT.COM



JWST teleskopioaren atal bat izango da hau.

JAMES WEBB espazio-teleskopioa (JWST) NASAk eraikiko duen mota horretako bigarren teleskopioa izango da. Izpi infragorrien bidezko ikusmena izango duenez, unibertsoan sortu ziren lehen galaxiei buruz gehiago jakiteko balioko du.

Berriki egin den txostenaren arabera, ordea, 2008an estimatutako 5.000 milioi dolarrek motz geratuko dira teleskopioa egiteko, eta gutxienez %30 gehiago beharko da. Antza denez, arazoa ez da alderdi tekniko edo zientifikoen garestitzea, proiektu osoaren kudeaketa txarra baizik. Proiektuak NASako Astronomia Sailaren aurrekontuaren %40 xurgatuko duenez, ez dirudi NASAtik bertatik falta den dirua aterako denik. Bitartean, Hubble teleskopioari bizitza luzatu zioten joan den urtean, astronauta estatubatuar batzuek egindako konponketari esker. 2014ra arte iraungo omen du; ordurako prest izango da JWST?

Berandu afaltzeak gizentasuna eragin dezake

OHIO-KO UNIBERTSITATEKO (AEB) Laura Fonken eta Randy Nelson ikerlariak behatu dute gauez argiaren pean dauden saguak gauez ilunpean daudenak baino %50 gehiago gizentzen direla, itxura batean guztiek antzeko janari kantitateak jan arren.

Gaueko argitasunak desordutan jatea eragiten bide die saguei, eta horrek gizentasuna eragin, ohiko orduetan jateak ez bezala. Beste proba batean, ikerlariak argiaren pean eduki zituzten sagu batzuk, baina janaria ohiko orduetan baizik ez zieten eman. Haiek ez ziren loditu gauez ilunpean zeudenak baino gehiago. Hala, ikerlariak uste dute gorputzak era desberdinean metabolizatzen duela une batean edo bestean jandakoa. Zehatzago esateko, gaueko argitasunak metabolismoan parte hartzen duen hormona bati eragin diezaiokeela pentsatzen dute.

Proba hauek gizakiarekin egin nahi dira; bitartean, saguekin gertatutakoa estrapolatuz ondorioztatu daiteke berandu afaltzeak edota gauez lan egiteak metabolizazio desberdinetara eramán gaitzakeela, gizentasuna eraginez.



MALLINALTZIN-CC BY SA

NN Serpentis sistema, billar kosmikoa

Lurretik 1.670 argi-urtera dagoen NN Serpentis izar-sistema ikusgarria da. Bi izar koloretsuk osatzen dute sistema, bata gorria eta bestea zuria, eta elkarrekiko biraka ari dira billar boleak egiten dituzten antzeko mugimenduekin. <http://ttiki.com/19525> (Frantsesez)

Minaren aurkako pastillek antzutasuna eragin dezakete

Haurdun dauden emakumeek minaren aurka parasetamola, aspirina edota ibuprofenoa hartzen badute, erditutako umea mutila izanez gero, honek antzutasun arazo larriak izan ditzake, Danimarkan, Finlandian eta Frantzia egindako azterketa baten arabera. <http://ttiki.com/19526> (Frantsesez)

Super-eroankortasuna eta magnetismoa elkarrekin ematea lortu dute

Super-eroankortasuna elektroiak oztoporik gabe mugitzea da. Ereku magnetikoek eragotzi egiten dute hori, baina Rice-ko eta Cornell-eko unibertsitate estatubatuarretako ikerlariak bi gauzak batera existitzea lortu dute, sistema berezi baten bidez. <http://ttiki.com/19528> (Gaztelaniaz)

Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16